

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2015eko OTSAILAREN 11ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2015eko otsailaren 11an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Imanol Aranzabal Lasa
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea
Karlos Irazu Muñoa


Bere ezin etorria azaltzen du: Aritz Usandizaga Larrañaga eta Jon Tejeria Otermin

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
 - **2015eko urtarrilaren 15ean egindako ohiko bilkura.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. 2014 urteko kultur asteko gastuen kitapenaren berri ematea, hala bada.**
- 4. Enplegu berdearen berri ematea.**
- 5. 2000 biztanle baino gutxiago duten udalerriei zuzendutako bileraren berri ematea, dirulaguntzak banatzeko formulak erabakitzea.**
- 6. 2015 Ekitaldirako Udal aurrekontu orokorraren espedienteari hasierako onespena ematea, hala bada.**
- 7. DINA 7 Kultur Elkarteak aurkezturiko 2014 urteari buruzko Larraulgo Ekomuseoaren memoriaren berri ematea eta 2015 urteari dagokion diru-laguntza eskera, hala bada.**
- 8. 2014 urtean Larraul, Ernio, Larraul mendi lasterketarako emandako diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada.**
- 9. 2015 urtean Larraul, Ernio, Larraul mendi lasterketarako diru-laguntza eskaera, hala bada.**
- 10. Tolosaldeko Atariak eginiko diru-laguntza eskaera, hala bada.**
- 11. 28 kanalak eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

12. Donostiako Lan arloko 5zk.ko epaitegian I.G.L. andreak Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari jarritako helegitearen berri ematea, hala bada.
13. J.D.D.S.F. jaunak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.
14. A.G. jaunak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.
15. J.M.A.A. jaunak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.
16. Fakturak eta ordainketak.
17. Beste batzuk.
18. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2015 urteko urtarrilaren 15eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

02/2015 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 22koa, Iberdrola Clientes SAUri eskatzea Larraulgo Udala Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentralak ezarritako baldintzetan sartzeari, energia elektrikoa hornitzeko esparru akordioaren kontratazio espedienteari dagokionez eta gainerako partaideen eskubide eta betebeharrak berdinekin, ebazten duena.


03/2015 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 27koa, 2014ko 4. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

04/2015 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 29koa, S.U.J.-ri hirilurren balio gahikuntzaren gaineko zergaren kitapena onestea, ebazten duena.

05/2015 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 29koa, A.M.O.-ri hirilurren balio gahikuntzaren gaineko zergaren kitapena onestea, ebazten duena.

06/2015 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 9koa, hutsik dagoen idazkari-kontuhartzaile postua betetzeko berarizko oinarriak onartzea, ebazten duena.

07/2015 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 10ekoa, J.D.Q. izenean agertzen den 5332-BPX matrikula duen ibilgailuari, ofizioz baja ematea ibilgailuen gaineko zergan, ebazten duena.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

2014 URTEKO KULTUR ASTEKO GASTUEN KITAPENAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik 2014ko azaroak 24tik azaroaren 29ra eta abenduaren 30ean Larraulgo Aste Kulturala egin dela bertan hainbat gastu egon direlarik. Ondorengoak izanik:

ORDAINKETAK:

| | |
|-------------------------------|--------|
| -Egutegia (111) | 333,00 |
| -Afarria(bakoitzak ordaindua) | 243,40 |

Ekintzak

| | |
|-----------------------|--------|
| -Bakarrizketa | 200,00 |
| -Hitzaldia Fraisoro | 150,00 |
| -Fernando Amezketarra | 500,00 |
| -Karobi hamaiketakoa | 40,00 |

Mus Txapelketa

| | |
|----------|-------|
| -Arkumea | 75,00 |
|----------|-------|

Haur merienda eta eskulanak

| | |
|------------|-------|
| -Elkartea | 17,70 |
| -Janaria | 43,00 |
| -Eskulanak | 80,10 |

Talo jana


| | |
|---------------------------|--------|
| -Urdaia-Gazta -Txorixoa | 157,00 |
| -Artirina | 34,00 |
| -Gaztainak | 137,50 |
| -Txokolatea-freskagarriak | 21,50 |
| -Ogia | 13,50 |
| -Elkartea | 206,35 |
| -Saskia | 44,00 |

GUZTIRA:

2.296,05€

SARRERAK:

| | |
|--------------------|----------|
| -Udalaren ekarpena | 2.000,00 |
| -Saski boletoak | 168,00 |
| -Mus txapelketa | 100,00 |



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

| | |
|-------------------|------------------|
| -Afarria | 277,00 |
| GUZTIRA: | 2.545,00€ |
| BALANTZEA: | + 248,95€ |

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- 2014ko aste kulturaleko gastuen kitapena onestea.

LAUGARREN PUNTUA **ENPLEGU BERDEAREN BERRI EMATEA**

Alkateak batzarkideei jakitera ematen die, Alkizako Udalak diru-laguntza bat eskatu duela, Ernio Gatzume eremuan dauden lursailetan ikerketa bat egiteko pertsona bat kontratatzeko. Foru Aldundiak diru laguntza onestu du, 9 hilabetez pertsona bat kontratatzeko aipaturiko lana egiteko.


Alkizaren nahia zabaldu egin da Ernio Gatzume eremuan kokatuta dauden beste herrialdeetan aipaturiko ikerketa egiteko. Horretarako Tolomendi bidez Tekniko bat kontratatatu da. Larraulgo herrian ere lan hori egingo du kontratatutako teknikariak, aipaturiko eremuan dauden lursailak larre eremuak bereiztuaz. Ondoren larre eremuen jabeekin teknikaria bilduko da, bere erabilpenari buruz jabeen iritzia entzuteko, hau da, ea hauek prest dauden larren ustiapena hirugarrenengo batzuei uzteko. Prest badaude jabeak larren ustiapena hirugarrenengo batzuei uzteko, teknikariak hauek bilatzen saiatuko da. Lana amaitzean, lortutako emaitzak jakitera emango dituelarik.

Batzarkideak guztiaren berri hartzen dute.

BOSTGARREN PUNTUA **2000 BIZTANLE BAINO GUTXIAGO DUTEN UDALERRIEI ZUZENDUTAKO BILERAREN BERRI EMATEA, DIRULAGUNTZAK BANATZEKO FORMULAK ERABAKITZEA**

Alkateak, batzarkideei berri ematen die, 2015 urterako Gipuzkoako Foru Aldundiak 2000 biztanle baino gutxiago duten udalerriei zuzenduta diru-laguntzak eman behar dituela. Horren berri emanaz otsailaren 5ean bilera bat izan zuten.

Aipaturiko bileran, 1.000.000 euro zeudela adierazi zieten Foru Aldundiko ingurumen diputatuak bertaratutako alkateei. Diru kopuru honetatik, 200.000 euro Plan Orokorrak diruz laguntzeko gorde dituztela berri eman zien, 2014urtean helburu horretarako gordeta zegoen partida ezin denez 2015 urtera luzatu. Beraz,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

inbertsioetarako 800.000euro gelditzen direlarik. Gutxi gora behera 18.000 euro Udaletxe bakoitzarentzat. Foru Diputatuak ere jakitera eman zien urtean zehar lortzen bada diru gehiago banatuko dela 2.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan.

Ondoren, Alkateak, Udalbatza honetara bertaratuei galdetzen die, ea ze proiektu aurkeztu daitezkeen, kontutan izanik, Hezkuntzara eskolako aterpea eta komunak egiteko diru-laguntza eskaera egin dela, oraindik erantzuna jaso ez delarik.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2.000 biztanle baino gutxiago duten udalerriei zuzentzen diren diru-laguntzen deialdian, ondorengo inbertsioak aurkeztea:

- Eskolako komunak
- Frontoi atzean gainezka egiten duten urak kanalizatzeko beharrezkoa den obra.
- Bidea asfaltatzea.

SEIGARREN PUNTUA

2015 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN ESPEDIENTEARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA


Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2015 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Larraulgo Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.
- Txostenak.
- Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-Kontuhartzaileak 2015eko otsailaren 2an egindako txostenean dioena.

Gaia eztabaidatu ondoren bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENENA.- Larraulgo Udaleko 2015 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingo onartzea 348.801,00 eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

GASTUAK

| | |
|-----------------------------------|------------|
| I. Kap. Pertsonal-gastuak | 84.646,53 |
| II. Kap. Ondasun gastuak | 102.210,00 |
| III. Kap. Finantza gastuak | 1.335,00 |
| IV. Kap. Transferentzi arruntak | 57.500,00 |
| VI. Kap. Inbertsio errealak | 58.609,47 |
| VII. Kap. Kapital Transferentziak | 8.000,00 |
| IX. Kap. Pasibo finantziarioak | 36.500,00 |

GUZTIRA GASTUAK 348.801,00

SARRERAK


| | |
|--|------------|
| I. Kap. Zuzeneko zergak | 47.008,00 |
| II. Kap. Zeharkako zergak | 2.000,00 |
| III. Kap. Tasak eta bestelako sarrerak | 42.670,00 |
| IV. Kap. Transferentzia arruntak | 224.218,00 |
| V. Kap. Ondare-sarrerak | 4.705,00 |
| VI. Kap. Inbertsio errealak inorenganatzeara | 0,00 |
| VII. Kap. Kapital-transferentziak | 28.200,00 |
| IX. Kap. Pasibo finantzieroa | 0,00 |

GUZTIRA SARRERAK 348.801,00

BIGARRENA.- 2015ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorraren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurtso eta alegazioak tarteratzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

LAUGARRENA.- Idazkari-kontuhartzaileak 2015eko otsailaren 10ean egindako egonkortasun txostenean adierazitakoa onestea, non azaltzen den:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan Ogasun eta Finantza Departamenduak argitaratutako jarraibideak (2014ko abenduaren 15ean publikatua GAOan) dioena aplikatuz:

Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzariora egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Era berean, gastuaren araua bete ez duten entitateek, planaren ordezkari, komunikazio bat aurkeztu diezaizkete Udalbatzarrari, Kontu hartzaileak sinatua, entitatearen iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- 2014ko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.
- 2015erako defizit eta zor helburuak betetzea.

Gauzak horrela, aurretik esandakoa betetetzearren komunikazioa aurkezten zaio Udalbatzarrari adieraziz:

- 2014ko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak direla.
- 2015erako defizit eta zor helburuak betetzen direla.

ZAZPIGARREN PUNTUA

DINA 7 KULTUR ELKARTEAK AURKEZTURIKO 2014 URTEARI BURUZKO LARRAULGO EKOMUSEOAREN MEMEORIAREN BERRI EMATEA ETA 2015 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA


Ikusirik DINA 7 Kultur elkarteak aurkezturiko 2014 urteko Larraulgo Ekomuseoaren memoria.

Ikusirik DINA 7 Kultur elkarteak prest dagoela 2015 urtean ere Larraulgo Ekomuseoaren kudeaketarekin jarraitzea.

Ikusirik DINA 7 Elkarteak eginiko 2015 urterako diru-laguntza eskaera, euren jarduera aurrera eramateko.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, Karlos Irazu zinegotziaren abstentzioarekin, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: DINA 7 Kultur Elkarteak aurkezturiko 2014 urteko Larraulgo Ekomuseoaren memoria onestea.

BIGARRENA: Larraulgo Udalak onespena ematea, DINA 7 Kultur Elkarteak 2015 urtean Larraulgo Ekomuseoaren kudeaketa eraman dezan, horretarako dagokion hitzarmena sinatuko delarik. Larraulgo Udaleko Alkate-Lehendakaria ahalmentzen delarik aipaturiko hitzarmena sinatu dezan.

HIRUGARRENA: DINA 7 Elkarteari 1.000 eurotako diru-laguntza ematea, euren jarduera aurrera eramateko.

LAUGARRENGOA: 1.000,00 eurotako gastua onestea, 2015 urteko aurrekontuetako 422.333.00.01 partidaren kargura.

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri DINA 7 Elkarteari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2014 URTEAN LARRAUL, ERNIO, LARRAUL MENDI LASTERKETARAKO EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, 2014ko otsailaren 13an eginiko Udalbatzarrean, Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren antolaketarako 2014 urteko aurrekontuetan aurreikusita zegoenez, 600 euroko diru-laguntza ematea erabaki zuela Larraulgo Udalak.

Kontutan hartuta diru-laguntza eman ondoren baldintza bat jarri zela, hau da, 2014ko kitapena aurkeztu beharko zela.

Ikusirik, A.A.J. jaunak Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren 2014ko kontuen kitapena aurkeztu duela Larraulgo Udalean.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: A.A.J. jaunak aurkezturiko Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren 2014ko kitapena onestea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

2015 URTEAN LARRAUL, ERNIO, LARRAUL MENDI LASTERKETARAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketa, datorren martxoaren 15ean ospatuko dela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketa antolatzeke diru-laguntza eskaera, DYA egun horretan lasterketan egoteko dagokion izapideak egitea, Asteasuko udalari lasterketan erabiliko diren hesiak eta kronometroa uzteko eskaera egin dezan, eskatzen duela A.A.J. jaunak Larraulgo Udalari.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren antolaketarako 2015 urteko aurrekontuetan aurreikusita dagoenez, 600 euroko diru-laguntza ematea, urte amaieran kontuen kitapena aurkeztu beharko duelarik.

BIGARRENA: Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketan, DYA egun horretan lasterketan egoteko dagokion izapideak egitea eta Asteasuko udalari lasterketan erabiliko diren hesiak eta kronometroa uzteko eskaera egitea, onesten duelarik, Larraulgo Udalak.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri A.A.J. jaunari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO ATARIAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Atariak eginiko diru-laguntza eskaera, biztanleko 5 euro eskatzen dutelarik.

Ikusirik, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko lankidetzahitzarmena 2015-2017 urte bitartean, Larraulgo Udalak goran aipaturiko diru-laguntza eman dezan.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Atariari 750 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2015-2017 urte bitarteko lankidetzahitzarmena ez onartzea.

HIRUGARRENA: Larraulgo Udalaren eta Tolosaldeko Atariaren artean, 2015 urteari dagokion lankidetzahitzarmena onestea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LAUGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmenu, Larraulgo Udalak eta Tolosaldeko Atariak 2015 urteari dagokion lankidetzaren hitzarmena sinatu dezan.

BOSTGARRENA: 750 eurotako gastua onestea, 2015 urteko aurrekontu orokorreko 422.334.00.02 partidaren kargura.

SEIGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldeko Atariari ematea.

HAMAİKAGARREN PUNTUA

28 KANALAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik 28 kanalak eginiko diru-laguntza eskaera, biztanleko 2 euro eskatzen dutelarik.

Ikusirik goian burutzeko diru-laguntza, 28 kanalak 2015 urteari dagokion hitzarmena aurkezten dutela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENA: 28 Kanalak eginiko diru-laguntza eskaera ukatzea, Larraulgo Udalak 2015 urterako aurrekontu orokorrean ez duelako 28 kanalari diru-laguntza emateko partidarik.


BIGARRENA: Erabaki honen berri 28 kanalari ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA

DONOSTIAKO LAN ARLOKO 5zko. EPAITEGIAN I.G.L. ANDREAK AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI JARRITAKO HELEGITEAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Alkateak batzarkideei berri ematen die I.G.L. andreak Donostiako Lan arloko 5.zbko. epaitegian Aiztondo zerbitzuen mankomunitatearen aurka helegite bat tartekatu duela lan baldintzen aldaketa sustantzial bat medio izan delako. Hau da, Zizurkilgo Udalak, I.G.L. andreak bere udalarentzat lan egiten duen lanaldiaren % 20a behar ez duelako, eta beste hiru herriak ezin dutelako lanaldi portzentai hau bere gain hartu, I.G.L.-ri % 80eko lanaldira murriztu diotelarik.

Bitarte honetan Aiztondo Mankomunitateko lau udaletxetako ordezkariak I.G.L. andrearekin bildu dira eta Zizurkilgo udalak planteatzen duena onesten duela agertu du, hau da, bere lanaldia % 80a izatea, eta Zizurkilgo Udalak % 20ko lanaldi murrizketagatik suposatzen zaion indemnizazioa kobratzea, lan egin duen urte bakoitzeko 45 lanegun ordainduaz. Tartekaturiko helegitea bertan behera geldituaz.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Batzarkideak guztiaren berri hartzen dutelarik.

HAMAIRUGARREN PUNTUA

J.D.D.S.F. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik J.D.D.S.F. jaunak eginiko eskaera, non, herriko festetan tiro pitxoi postu bat jartzeko baimena eskaera egiten duen.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Herriko festetan postuak jartzeko eskaerak, denak batera uztailean egingo den Udalbatzarrean.

HAMAL AUGARREN PUNTUA

A.G. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik A.G. jaunak eginiko eskaera, non 2015 eko urtarrilaren 15ean izandako Udalbatzarrean, Goieneta-Goena baserrikoek bi langa kendu behar zutela erabakia hartu zuen, kexa bat medio zela, herri bideak irekita egon behar zutela arrazoituz.

A.G. jaunak bere eskaeran aditzera ematen du, aipaturiko bi langak kentzeko prest dagoela, herri guztian dauden herribideetan dauden langa guztiak kentzen badira, beraz Larraulgo herrian dauden herribideetako langa guztiak kentzeko eskaera egiten du.


Batzarkideen artean luzez eztaibadatzen da, Larraulgo herrian zehar dauden herribide guztietan jarrita dauden langak kentzea sortu zezakeen arazoa handi izan daitekeelako.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, odorengoa

ERABAKITZEN DU.

LEHENA: A.G. eta J.M.A. jaunekin hitzegitea, Goieneta –Goena eta Goieneta-bitarte azpian dauden bi langak sortu duten arazoa dela eta, konponbide batetara iristeko. Ondoren, hurrengo Udalbatzan bi alderdiekin izandako bileraren berri emango da. Bitartean 2015eko urtarrilaren 15ean egindako Udalbatzak hartutako erabakia, hau da, Goieneta –Goena eta Goieneta-bitarte azpian dauden bi langak kentzeko erabakia, hurrengo Udalbatzararte atzeratuta geldituko da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri A.G. eta J.M.A. jaunei ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HAMABOSTGARREN PUNTUA

J.M.A.A. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik J.M.A. jaunak eginiko eskaera, non azaltzen duen bere jabetzako lursail batetik PR-ak gaizki markatuta daudela, terreno partikularretik pasatzen direlako. Horregatik PR-ak bere tokitik markatzea eskatzen du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.M.A. jaunari jakitera ematea, PR-116- markatuta dagoen bezala sortu zela.

BIGARRENA: J.M.A. jaunari jakitera ematea, bere kexa ondoren, Larraulgo Udalak, PR 116 ukitzen dituen terreno partikularren ondoko herri bideak aztertuko dituela, eta ibilbide berria finkatuko duela.

HAMASEIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:


| | |
|----------------------------|----------|
| LIDOINSA | 743,24 |
| TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA | 2.032,86 |
| PASKIN | 151,25 |
| NEUMATICOS PASAJES | 460,00 |
| SASMAK | 92,34 |
| TOLOMENDI | 150,00 |
| AITZOL UDAL EUSKALTEGIA | 56,84 |
| GAS NATURAL FENOSA | 56,76 |
| GAS NATURAL FENOSA | 338,36 |
| GAS NATURAL FENOSA | 476,34 |
| MOVISTAR | 48,40 |
| MOVISTAR | 18,15 |

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **4.624,54** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

Une honetan, gaueko 21.20 minututan, Karlos Irazu Muñoa zinegotziak Udalbatza hau uzten du.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HAMAZAZPIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten

HEMEZORTZIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

18.1. VILLABONAKO BAKE EPAITEGIEN AGRUPAZIOAK AURKEZTURIKO MOZIOAREN AZTERKETA, HALA BADA.


Ondoren Villabonako bake epaitegien agrupazioak, aurkezturiko mozioa aztertzen da, ondorengoa diolarik:

“Erregistro Zibilak gure bizitzaren gertaera garrantzitsuenak jasotzen ditu. Bertan erregistratzen dira norberaren jaiotza, ezkontza, seme-alabak, eta heriotza. Baita hasierako inskripzioa aldatzea eragiten duten bizi gorabeherak jasotzeko espedienteak ere izapidetzen dira hor: aitatasun edo amatasun aitortzea; adopzioa; ezgaitasun-deklarazioa; tutoretzak; izen, abizen edota sexu aldaketak; nazionalitatea eskuratzea; pentsio publikoak edo aseguruak edo osagai pribatuak edo enpresarenak kobratzen jarraitu ahal izateko gure nagusiek hain beharrezkoa duten bizi-agiria ematea. Horregatik, funtzionario publikoak izan dira Erregistro Zibila eraman dutenak betidanik; izan ere, duela zenbait urte Justizia Ministerioko (edo erkide autonomiko Justizia saileko) funtzionarioek bermatzen dituzte jasotako datuak eta, era berean, legalki dagozkion pertsonari haien eskuratze libre eta doakoa.

Bake epaitegiek herritarrei Justizia administrazioa hurbiltzen diete, alderdi diren edozein prozeduraren inguruko informazio orokorra eskaintzen dietelako, eta honez gain, Erregistro Zibileko izapideak betetzen dituztelako. Horrela, herritarrek ez dute horrelako tramiteak egiteko hiriburuetara joan behar, hainbat herritan bake epaitegia dagoelako.

Azken urteetan, gainera, Herri Administrazioak diru inbertsio handia egin du Erregistro Zibilaren jarduna modernizatzeko: zerbitzu honi dagozkion dokumentuak informatizatu eta digitalizatu eta bertan dauden datu guztietarako sarbide eta erabilpen segurua eta kontrolatua izateko programa martxan jarri du. Zehazki, diru publikotik 128 miloi euro baino gehiago inbertitu dira teknologia berri hauetan.

Alderdi Popularraren gobernuak Erregistro Zibila esku pribatuetan utzi nahi du, horren kudeaketa merkataritza erregistratzaileei emanetz, bake epaitegien eta gaurko barruti judizialen existentzia zalantzan jarriz. Horrela jasotzen da Botere Judizialaren Lege Organikoa eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legea aldatzeko aurreproiektuetan, eta uztailaren 4ko 8/2014 Errege Dekretu Legean.




LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Aurtengo otsailaren 20an, PNV-EAJ, Euskal Herria Bildu eta Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra alderdien babesarekin, Eusko Legebiltzarrak legez besteko proposamena onartu zuen Erregistro Zibila gaur egun dagoen moduan mantentzeko, hiritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskaintzeko.

Zehazki, pribatizazioak ekarriko ditu:

- 1. 3.500 langile publikoen lanpostuen galera. Hauek prestatuak izan dira, eta gaitasuna eta espezializazioaren jabe dira Erregistro Zibil arloan.*
- 2. Bake epaitegiak egungo zereginenez hustea lehen neurria da, euren desagertzea bilatuz gerokoan. Norabide horretan, Botere Judizialaren Lege Organikoan eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legean egindako aldaketek aukera ematen diete, ez soilik bake epaitegiak desagertzeko aukera, baizik eta barruti judizial gehienak ere, epaitegiak hiriburuetan soilik kokatuko dituztelarik.*
- 3. Tasak jarriko dira zerbitzua ematearen truke. Egia da 8/2014 Errege Dekretu Legeak esaten duela zerbitzua doakoa izango dela, baina Merkataritza Erregistratzaileak, lanbidera sartzeko erari eta monopolio gisa duten zereginari dagokienez, funtzionario publikoak izan arren, muga-zergen bitartez kobratzen dute egindako zerbitzua; eta etorkizunean, Erregistro Zibilean egin beharreko izapideak ere horien bitartez kobratuko dituzte, hau da, herritarrei nahitaezkoak zaizkien jaiotze bat erregistratu, familia liburua, heriotza, ziurtagiriak, bizi eta egoera agiriak, etb.... Gainera, lege berriak erregistratzaileen ahalmenak handitzen ditu eta inskribatu beharreko kontuak ikaragarri puzten (edozein ahalorde, helbide inskripzioak, pentsio-planak, testamentuak...), hauek guztiak, jakina, herritarrek ordaindu beharko dituzte. Horrela, hemendik aurrera Erregistro Zibilak merkatal jarduera izango du, eta egite bakoitzak bere salneurria izango du, eta jasotako dirua gutxiengo pribilegiatu horientzat izango da.*
- 4. Datu babesaren segurtasun falta. Merkataritza Erregistroko langileak ez dira funtzionario publikoak baina herritarren datu pertsonaletarako sarbidea izango dute, nahiz eta funtzionario publikoak ditugun isilpeko eta sekretuko betebeharrak ez izan.*
- 5. Azken urteetan Erregistro Zibila modernizatzeko egindako inbertsioa esku pribatuetara pasatuko da, kudeaketaren emate horrek baitakartza baliabide material guztion ematea ere. Baliabide materialak ematea diru publikoa xahutzea da: Inbertsioak eginak daudelako, baliabide materialak ordainduak, azpiegiturak eginak eta giza baliabideak kontratatutak, formatuak eta gaituak. Hots, diru publikotik 128 milioi euro oparituko zaie Merkataritza erregistratzaileei euren onerako.*
- 6. Erregistro Zibilean gordetzen diren gure historia pertsonalerako, familiarerako eta herri gisa dauzkagun datuetarako sarbidea murriztea. Gure arbasoen, haien jatorriaren eta bizimoduaren gaineko informazioa aurki baitateke bertan.*



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Hau guztia dela eta, Larraulgo Udalaren osoko bilkurari eskatzen dizkiogu:

- *Merkataritza erregistratzaileei Erregistro Zibilaren kudeaketa ematen dion uztailaren 4ko 8/2014ko Errege Dekretu Legearen aurka ager dadin.*
- *Halaber, adieraz ditzan bake-epaitegiak eta gaurko Erregistro Zibilaren bulegoak izan behar direla Erregistro Zibilak kudeatzen dutenak, herritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskainiz, orain eta betiko.*
- *Kontutan izanda aipatutako EDLa indarrean sartuko dela 2015eko uztailaren 15ean eta aurtengo otsailean Eusko Legebiltzarrak onartutako ebazpenarekin bat eginda, udal honek eska diezaion Eusko Jaurlaritzari Erregistro Zibila Kudeatzeko eta betearazteko eskumenak jasotzeko negoziazioak azkar ditzan.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Villabonako bake epaitegien agrupazioak aurkezturiko mozioa bere osotasunean onestu du.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.25 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA